



Istripu asko gertatzen dira pertsonak ibilgailuaren hainbat lekutatik erorita. Istripu hauek sektore guztietan gertatzen dira, baina bereziki garraio sektorean.

Mota honetako istripuek eragindako lesioak era askotakoak izan daitezke: kolpeak, ebakiak, bihurrituak, hausturak, eta, kasu batzuetan, baita heriotza ere. **BURUKO KOLPEEK** oso ondorio larriak izaten dituzte.



## IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- **IGO/JAISTEA** ibilgailutik, kamioiaren hainbat aldetatik (eskailera-mailak, estribuak, heldulekuak, eskailerak, etab.) igotzeko/jaisteko dauden elementuak erabili gabe.
- Pertsonen **EGONKORTASUNA GALTZEA** eragiketa hauetan:
  - **ZAMALANAK.**
  - **TOLDOA** jartzea eta kentzea.
  - **KARGA** banatzea eta lotzea.
- **ZISTERNEN/ATOIEN** goiko aldeetatik ibiltzea, erorikoen, perimetro-babesen eta bizi-lerroen aurkako babes-elementu egokirik gabe...
- **ZAMAREN GAINETIK** ibiltzea.
- **EGOERA TXARREAN** dauden eskailerak erabiltzea.
- **EGURALDI TXARRA** (euria, izotza, ...).
- **ORDENARIK ETA GARBITASUNIK EZA.** Gainazal zikinak edo irristakorrak.
- Aurreikusitako prebentzio-neurriak **EZ HARTZEA**: emandako jarraibideak ez betetzea, eskura dauden bitartekoak/ekipoak ez erabiltzea edo emandako neurriak ez hartzea.



## PREBENTZIO-NEURRIAK

- **IGO ETA JAISTEA**, bai ibilgailuaren kabinatik, bai ohetik, horretarako dauden baliabideak erabiliz: estribuak, heldulekuak edo sartzeko eskailerak.
- Ibilgailua erabiltzen den bitartean jarraibide seguruak hartzea:
  - Inoiz ez egin salto kabinatik, ezta kamioiaren ohetik ere.
  - Igotzea eta jaistea **BETI** ibilgailuari begira.
  - Barandei edo heldulekuei ondo eustea.
  - **EZ IGOTZEA** kamioiaren egituretatik.
  - **EZ** ibiltzea zamaren gainetik.
- **MINIMIZATZEA** kamioiaren ohearen gainean egin beharreko eragiketak, eta ahal den guztietan lurretik egitea. Ohera igotzea behar-beharrezkoa denean bakarrik, kontu handiz ibiliz beste modurik ez badago.
- **ERABILTZEA** altueran erortzeko arriskuari aurre egiteko babes-sistemak (ainguratze autosostengatzaileko sistemak, bizi-lerroak, ...).
- Zisternen eta atoiaren goiko aldearen perimetroa babesteko barandak **JARTZEA**. Aldian-aldian, egoera onean daudela egiaztatzea.
- Esku-eskailerek beharrezko erresistentzia eta elementuak izango dituzte, horiek erabiltzeak arriskurik ekar ez dezan.
- Horretarako **INSTALAZIO ESPEZIFIKOAK** dituzten lantokietan egiten diren eragiketetan (zisternak kargatzeko, toloak jartzeko, ...), kontuan hartu beharko da kasu bakoitzean ezarritako lan-prozedura, babes kolektiboak eta indibidualak erabiltzeko beharra, bai eta zeregin bakoitzerako egokiak diren lan-ekipoak ere (esku-eskailerak, eskailera finkoak, lan-plataformak, ...).  
Ekipo horiek erabili aurretik, egiaztatu egoera onean daudela eta elementu irristagaitzak dituztela. Era berean, haien egonkortasuna bermatzeko eta lerradura eragozteko moduan jarriko dira.
- **KONTU HANDIZ** ibiltzea baldintza meteorologiko txarretan (euria, izotza, ...).
- Norbera babesteko ekipamenduak **ERABILTZEA**: eskularruak, **KASKOIA KOKOSPEKOA** eta **ZOLA IRRISTAGAITZA** duten segurtasun-oinetakoak.
- Oinetakoak eta kamioiaren gainazalak (buztina, olio, ...) **GARBI EDUKITZEA**.
- Egin beharreko eragiketen arabera, lana **PLANIFIKATZEA**, arriskuak **IDENTIFIKATZEA** eta ezarritako prebentzio-neurriak **HARTZEA**.

